

# Balioa

Lehenik eta behin, gure elkartearen funtzioa aipatzea garrantzitsua dela uste dugu. Gure elkarteak behar bereziak edo zehatzak dituzten haurrak laguntzea du helburu.

Gure elkarteak, beste elkarte batzuk ez bezala, hurrei banakako arreta pertsonalizatua eskeintzen die. Bakoitzaren kualitate edo ezaugarri eta beharretan zentratzen gara, haur horiek laguntzen eta beraien potentzial guztia atera dezaten saiatzen gara. Horretaz gain, gure elkarteak, hurrei laguntzeko prest egongo da uneoro, beraien ongizate osoa lor dezaten.

Gainera eskaintzen ditugun zerbitzuak edo arreta, presentziala izateaz gain, online edo internet bidez ere jasotzeko aukera badago. Presentzial egiten diren ekintzak, materialarekin lotuta egongo dira gehienbat. Online egiten diren ekintzetan; aplikazio baten bidez, hainbat gauza erabiliz, bakoitzak dituen beharretan zentratzeko aukera izango dugu, adibidez, jolasen bitartez, abestien bitartez, eta baita irakurmena lantzeko ariketen bitartez ere.

Elkarteak hainbat ekintza bultzatuko ditu haurrak lagundu ahal izateko, besteak beste: irakurmena lantzeko ariketa desberdinak, psikomotrizitate saioak... etab.

Horretaz gain, aipatzekoa dela uste dugu, ez dagoela gure elkarteak bezalako zerbitzuak eskaintzen dituen beste elkarte edo erakunderik ezagutzen. Beraz, honekin esan nahi duguna da, elkarte berritzailea eta pertsonalizatua garela, eta hori gure bereizgarrietako bat dela.

Gure elkartearen ekintzetan parte hartzeko, familiek edo haurren legezko tutoreek, diru kopuru bat ordaindu beharko dute klase edo ekintzetan parte hartu ahal izateko. Baina, gure elkartearen gehiengoa Eusko Jaurlaritzak finantziazten duenez, ordaindu behar duten kopurua ahalik eta eskuragarrien izan daiten saiatu gara.

Beraz, ekintza edo saio bakoitzagaitik familiek edo legezko tutoreek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Horretaz gain, saio bakoitzak ordu bat eta erdiko iraupena izango du.

Garrantzitsua iruditzen zaigu ere aipatzea, familiek ordaintzen duten diru kopuru hori, elkartearen langileen soldatak finantziazteko dagoela bideratuta.